

noaua

**Mailegu sistema abian da
Sutegi udal liburutegian**

**Santixabel jaiak
bertan behera. Trukean,
Kultur Bira bat egingo da
uztailean zehar**

**Sagardo Eguneko plastiko
zatiak itzuli edo etxean
gorde ahal izango dira**

‘Ura sartu zen barrura’

**1997ko uholdeen arrastoa ageri da
Peru Galbeteren dokumental berrian**

G15 GIPUZKOA
HIGIEZINA
ELKARTEA



HIGIEZINA | INMOBILIARIA

ALOKAIRURAKO PISUAK BEHAR DIRA,
ESKAERA HANDIARENGATIK!

ALOKAIRU SEGURUA

Zure etxerako inkilino bikaina
aurkituko dugu,
12 hilabeteko errenta bermatua.

Etxebeste Kalea 15 - USURBIL 688 739 733 info@g15usurbil.com



NOAOA
BIDAIAK

Hipodromo Etorbidea, 10
LASARTE-ORIA. Gipuzkoa

943 37 36 13

Ordutegia:

09:30-13:30

Aurretiko hitzordua beharrezkoa da

info@noaoa.eus



USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA

Ekaina
1 - 19



PREMATRIKULA

nola egin?

- on-line: ikasgunea.euskadi.eus
- Ikastetxean: txanda hartuta:

 943364600

Dokumentazioa:
DNI + espediente akademikoa

www.lhusurbil.eus

Albistea iruditan

Lertxundi-Artzabaleta bidea zabalik



Oinezkoentzat zein txirrindularientzat zabalik dagoela berri eman du Usurbilgo Udalak. Aurreko ostiralean amaitu zituzten lanak. Zonalde horretan lur eremurik dutenek kotxez ere sartu ahalko direla ohartarazi du Udalak.

Laburrean

Posta bidez bozkatzeko aukera zabalik da

Maiatzaren 19an zabaldu zen posta bidez bozkatzeko aukera. Eskiera Correosen bideratu behar da, uztailaren 2a baino lehen (atzerrian modu iraunkorrean bizi direnek ekainaren 13ra arte).

2021eko jai egunak Usurbilen

2021ean jai egunok izango ditugu: urtarrilaren 1a eta 6a; martxoaren 19a; apirilaren 1a, 2a eta 5a; maiatzaren 1a; uztailaren 2a eta 31; urriaren 12a; azaroaren 1a; abenduaren 6a, 8a eta 25a.

Berrogeialdian daudenentzat oharra

Udalak atez ateko sistema egokitu du COVID-19a izan edo berrogeialdian dauden etxeetarako. Kasu horietan, berebiziko garrantzia du Atez Ateko bulegora deitzeak: 900 776 776.

noaua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 ||| elkarte@noaua.eu ||| www.noaua.eu
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroit S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaua.eu

Banaketa: Inaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eu



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak
Euskal Herrira!



Imanol Ubeda

Zero kilometroa

Konfinamendua ezarri zenean, tokiko hedabideon jarduera ere funtsezkotzat jo zen. Elementu guztien kontra, hortxe aritu gara. Telelanean. Bulegokoak, kazetariak eta banatzaileak. Informazio praktikoa zabaltzen, zerbitzu publikoen berri eman ez, protagonisten ahotsak batuz, entretenimendua eskainiz... Jo eta su, hausnarketarako tarte bat hartzeko astirik gabe. Egunotan ordea, Iban Arantzabal Goienako zuzendariaren dekalogo argigarri bat iritsi zait. NOAUA!rako balio-garri izan daitezkeen premisa ugari topatu ditut bertan.

‘Zero kilometroa’ aipatuz gero, berehala datorkigu esa-

moldearen esanahia: tokiko produktua edo gertuko produktua. “Hori ere bada tokiko komunikabideak eskaintzen dizuna, gertukoa. Bertakoa”, dio Arantzabalek. “Etxe ondoko informazioa, bizilagunen adierazpenak, zure ezagunek idatzitako istorioak edota zuk zeuk kontatutakoak. Gure lerroetan irakurriko dituzunak ere zero kilometroko edo gertutasuneko gaiak dira”. Dena zero kilometro filosofiarekin, dena bertatik bertara, hurbil, tokiko. “Hortaz, bertakoa kontsumituz:

1. Elkar zainduko duen komunitatea sortuko da: herritarrak eta kazetariak; komertzialak eta komertzioak; herri-merkatuak eta komunikabideak.

2. Klikak bertan, bisitak bertan, zergak bertan. Facebook, Instagram, Youtube... Multinazionalak erabili zabalkunderako behar badituzu, baina ez kanal bakar moduan.

3. Erabakigunea zuk ezagutzen duzun jendeak izango du eta bezeroen onerako pentsatutako erabakiak hartuko dira. Ez da multinazionalen kasua.

4. Denda txiekiko errespetatuz egiten dute lan herri mailako komunikabideek. Bat gara.

5. Ekologikoa da zure edukia gertuenekoekin konpartitzea eta kontsumitzea.

6. Irismen masiboa dute tokiko komunikabideek. Zurea kontsumitzeko bertako komunikabideekin kontatu.

7. Euskaldunei lagunduko diezu. Euskarari ere bai. Euskaldunok zerbait behar badugu da euskarazko edukia euskaldunon eskuetan.

8. Zure herriko komunikabidean eginda, euskarazko komunikabideen sarea elikatzen duzu.

9. Entzun egingo zaituzte tokiko hedabidean eta batera jardun. Bertatik bertara.

10. Urrutiko intxaurrek hamalau, gerturatu eta lau.

Gertuko komunitatea = tokiko komertzioak + tokiko komunikabideak”.

Ozenago esan daiteke, argiago ez. Normaltasun berriari begira, bide-orri egokia izan daiteke. Baita hemen ere.

Imanol Ubeda

Aritz Gorriti

Luis Aranalde

Maddi Aburruza

Aitzaga Elkarte, momentuz itxita

Terrazak irekitzen doazen honetan, 2. fasean elkarte gastronomikoak ere baliatzeko aukera dago. Aitzaga Elkarteak Usurbilgo Ernai eta Sorturekin batera ohartarazi duenez aldiz, “zaila egiten zaigu ordea, funtzionamendu berri hau mar-

txan nola jarri erabakitzea”. Horregatik momentuz, elkarte itxita mantentzea erabaki dute. “Elkarte zein lokalak nola erabili protokolo bat prestatu eta martxan jarri bitartean, eta Sorturen gomendioak jarraituz, Aitzaga elkarte zein lokalen

erabilpena oraindik itxita mantentzea iruditu zaigu egokiena”.

Norbanakoa zainduz kolektiboa zaintzen dugula gogorazita, bizi dugun egoera norbanako bakoitzak “barrura begirako ariketa integrala egi-

teko aukera” baliatzea “ederra litzateke”. Antolakunde gisa ere lanketa kolektiboa egitea ezinbestekotzat jotzen du. Egoera oso ezegonkorra izanik, “egoera aldatu ahala, berrikusi eta doitu egin beharko ditugu zertzeladak”.

Komikia



ARRANDEGIA
PELLO
ASTEARTETIK-LARUNBATERA
8:30-13:30
EGIN ZURE ESKAERAK WHATAPP-ETIKI
650 31 31 91 USURBIL

ZALDIGAIN
ERREMENTARIA
• Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
• Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak....
www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867
Fax. 943300045

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

Iñaki
Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA •
ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com • www.inakiiturgintza.com
600 024 825

Zumarte Musika Eskolaren hurrengo ikasturtea, eraikin berrian

COVID19-aren eraginez, konfinamenduaren lehen asteetan erai-kuntzaren sektorean izan zen etenaldiak lanen amaiera zertxobait atzeratu dezakeen arren, Zumarte Musika Eskolak 2020-21 ikasturtea eraikin berria estreinatuz hasiko duela aurreikusten du udal gobernu taldeak, osteguneko udalbatzarrean aditzera eman zuen araberan.

EAJ-k gai honi buruz eginko galderari erantzunez, udal gobernu taldetik Lur Etxeberria zinegotziak osteguneko udalbatzar telematikoa adierazi zuenez, Udalak enpresa eraikitzailearekin dituen har-tuemanen baitan, "printzipioz irailean bertan (Kale Nagusiko eraikin berrian) klaseak has-teko modua izango dela esan digute".

Lanen amaiera bai, zertxobait atzeratu daitekeela adierazi zuen Etxeberriak. Gogoan izan, covid19-aren eraginez eraikuntza sektorea zenbait asteetan geldirik egon zela konfinamendu hasieran. Tarte horretan galdutako denbora "berreskuratu nahian ari dira baina uztailean zertxobait atzeratuko dira", udal gobernu taldetik zehaztu dutenez.

Uztailerako amaitu behar

Berez, uztailearen 17rako lanak amaitzea adostua du itun baten bidez Udalak enpresa eraikitzailearekin. Lanak atzeratzen diren egun bakoitzeko 10.000 euro ordaindu beharko ditu aipatu enpresak. COVID19-a eragiten ari den atzerapena tarteko ordea, "egoeraren larritasuna ikusita, malgutasunez jokatu dugu", iragarri zuten udal gobernu taldetik.

Aipatu moduan ordea, lanen amaiera zertxobait atze-



2020-2021 ikasturtea eraikin berrian hasiko dela aurreikusi du Udalak. Zumarte Musika Eskolan matrikulatzeko epea ostiral honetan amaituko da.

IRAILERAKO PREST

EAJ-k gai honi buruz eginko galderaren aurrean, udal gobernu taldearen erantzuna: "Printzipioz, irailean klaseak bertan hasteko moduan izango direla esan digu enpresa eraikitzaileak"

ratu arren, Zumartek 2020-21 ikasturtea eraikin berrian hasi ahalko duela aurreikusia du Udalak.

Matrikulazio kanpaina

■ Datak: Ekainak 1-5 bitarte.

■ Orduetgia presentzialki:

- Asteartean: 17:00-19:30.

- Ostegunean: 10:00-13:00.

■ Eskaintza: Musika Txokoa, musika mintzaira, tronpeta, tronboia, saxofoia, biolina, perkusioa, klarineta, eskusoinua, trikitixa, panderoa, pianoa, txistua, gitarra, flauta, organoa, abesbatza, talde instrumentala.

■ Matrikula nola egin: on-line datuak bete www.zumarte.eus orrian edo "2020-2021 Matrikulazio inpresoa" eskuz bete (Zumarten eskatu, 943371594) eta Zumarteko bulegoan entregatu

(Puntapax 10, behe).

■ Ordainketa: Plaza kopuruen zozketak egin eta onartutako ikasleen zerrendak argitaratu ondoren, adierazitako kontu korrontetik, ikaslea onartua izan den ikasgaien matrikularengatik ordaindu beharreko tasaren %10 kobratuko zaio ekaina bukaeran, %40 iraileko lehen astean eta %50 abendua hasieran.

Lehenengo urteko matrikulen eta kuoten prezioa mantenduko da.

Plaza banaketaren arautegia aplikatuko da.

■ Matrikulen prezioak, hobariak, Instrumentu-Musika Txoko-Abesbatzako ordutegiak... zumarte.eus web orrialdean ikusgai.

Aukeran, online

Duela bi urte matrikulazioa online egiteko aukera zabaldu zuten eta harrera oso ona izan zuen. "Oraingoan ere, herritar eta langileon osasuna bermatu nahian, matrikulazio guztia online egin nahi dugu. Hala ere, matrikulazioa presentzialki egiteko aukera izango da: ekainak 2 asteartea (arratsalde, 17:00-19:30) eta ekainak 4 osteguna (goizez, 10:00-13:00)".

Osasun krisiak eragindako emozioen inguruko tailerra

Pepa Bojo psikologoak 'A través del laberinto' izeneko tailer trinkoa eman go du ekainaren 19an eta 20an Potxoenean. Osasun krisian "elkar laguntzeko" tailer gisara planteatu du Bojok, osasun krisiak eta konfinamenduak jendearengan eragin dituen emozioen inguruan aritzeko. Emakumeen ahalduntzerako programaren barruan antolatu du tailerra udaleko Parekidetasun sailak.

"Proposamen honek COVID19-ak eragindako krisian bizitako esperientziak jasotzea du helburu, baita konfinamenduaren esperientziarenak ere, gertatutakoa ulertzeko prozesuan laguntzeko. Hala, baliabideak eman nahi zaizkie parte hartzaileei, krisian aurrera egin eta dolua kudeatzeko irizpideak eduki ahal izateko. Krisi bat, labirinto bat, modu osasuntsuan aurrera eginez soilik izan gaitezke erresilienteak pertsonalki zein kolektiboki", azaldu du Bojok.

■ Hizkuntza: gaztelania.

■ Iraupena: 12 ordu, bi egunetan banatuta.

■ Orduetgia:

-Ekainak 19 ostirala:

16:00etatik 20:00etara.

-Ekainak 20 larunbata:

10:00etatik 18:00etara.

Izen-ematea zabalik da

Doan den arren, izena eman behar da aurretik, "hamalau laguntzako lekua soilik baitago segurtasun neurriak bermatu ahal izateko", Parekidetasun Sailetik aditzera eman dutenez. Izena emateko azken eguna ekainaren 16a izango da. 943 37 71 10 telefonora deituta edo parekidetasuna1@usurbil.eus helbidera idatzita.

Foru funtsaren %20ko murrizketak eztabaida eragin du

Udalen finantziario iturri nagusietakoa den foru funtsari %20ko murrizketa aplikatzea erabaki zuen duela aste gutxi Gipuzkoako Foru Aldundiak. Gai honen harira moztio bana aurkeztu zuten maiatzaren 28ko udalbatzarrean EHBilduk eta EAJ-PSE-k. Moztio hauen harira eztabaida piztu zen, telematikoki egin zuten osoko bilkuran.

Foru Aldundiak aldebakarrez hartutako erabakiaren aurka agertu zen EHBildu. “Gipuzkoako Foru Aldundiak udalekiko izan duen jarrera erabat gaitzesten dugu”, adierazi zuen udal gobernu taldetik alkateorde Beñat Larrañagak, gai honi lotuta EAJ-PSEk aurkezturiko moztioaren aurka bozkatuko zuela iragartzearekin batera.

Aldundiaren foru funtsetik udalerrri honi 4,4 milioi euro pasatxo zegozkiola, eskubide hori aitortua zegoela eta “legez dagokigula diru hori jasotzea”, gaineratu zuen. Aldiz, “Gipuzkoako udaloi %20ko murrizketa ezarri zaigu, inolako datu fidagarririk gabe”, presaka hartutako erabakia izan dela, justifikazio gabea, eta martxoaren 31ra arteko zerga bilketa aintzakotzat hartuta. Udal gobernu taldeak ez du ulertzen, nolatan Foru Aldundiak ez duen itxaron “datu fidagarriagoak izan arte”. Are gehiago jakinik, “Bizkaian eta Araban beste malgutasun bat erakusten ari direnean”.

Beñat Larrañaga alkateordearen esanetan, hainbat adituren arabera, “zerga bilketaren murrizketa ez da %20koa izan, %10-12 bueltakoa baizik”.

Edozein kasutan, %20ko murrizketak udalerrri honek diru ekarpen txikiagoa jasotzea eragingo du urte honetan, 900.000 euro gutxiago hain zuzen, udal gobernu taldearen esanetan. “Beharrik gehien du-



Gai honi buruzko bi moztio aurkeztu ziren azken plenoan. Bat EH Bilduk aurkeztu zuen; EAJk eta PSE-k bigarrena.

BEÑAT LARRAÑAGA ALKATEORDEA

**“Beharrik gehien dugun
unean, finantziarioa
eraso digute”**

gun unean finantziarioa zuzenean eraso digute”, Larrañagak adierazi zuenez.

EAJ: “Honi guztiari aurre egiteko gai izango garea iruditzen zaigu”

Jeltzaleen bozeramaile Josune Urkolak Foru Aldundiak iragarritako foru funtsaren murrizketa defendatu zuen. “Foru Aldundiaren eginbeharra da dirua biltzea eta diru bilketa horretatik partida bat udalei banatzea. Eta hor berak aurreikuspen batzuk egiten ditu, urtean zehar lau zatitan ordaintzen zaiena udalei. Gero urtarrean likidazioa egiterakoan, urte batzuetan diru gehiago bildu bada, diru gehiago ematen zaie udalei eta alderantziz bada, dirua bueltatu egin behar izaten dute”.

Egungo egoera duela hamarkada bateko krisialdi eko-

nomikoarekin alderatu zuen Urkolak. “2011. urtean krisi sakon sakon batean izan eta udalen egoera gaur egun baino dezente okerragoa zenean diru mordo bat bueltatu behar izan zen”, oroitarazi zuen.

Udalak duen egoera finantzarioa nahiko osasuntsua zela gogorarazita, “honi guztiari aurre egiteko gai izango garea iruditzen zaiz”, adierazi zuen EAJ-ren ordezkariak.

Aurreko krisialdiarekin alderaketa

EAJ-ren adierazpenen aurrean, udal gobernu taldetik ulergarritzat jotzen zuten bizi dugun egoerak diru iturrietan eragitea eta erantzun beharra izatea, “denok jasango dugu krisi honen eragina”, Larrañagaren esanetan. Baina onartezintzat jotzen dute “inolako datu fidagarririk gabe”, %20ko murrizketa aplikatzea foru funtsari, zerga bilketaren murrizketa %11-12 bueltan dabilenean. “Dirua orain behar dugu aurreikusitako hainbat gastuei eta sortu diren gastu berriei aurre egiteko”, udal gobernu taldearen esanetan. Horrega-

tik zioten, ia zergatik ez den aurreikusitako diru kopurua jasotzen orain, eta 2021eko otsailean beharrezko egokitzeak egin.

EAJ-k 2011ko krisialdiarekin eginiko alderaketaren aurrean ziotenez, garai hartan “dirua faseka itzultzeko aukera eman zen”. Eta oraingoan ez, udal gobernu taldearen esanetan.

Hitz hauen aurrean, EAJtik Josune Urkolak galdetzen zuen ia “zertarako behar dugun diru hori”, Udalaren egoera finantzarioa ona baldin bada. “Ezin dugu gastatu jasotzen dugun heinean, badakigulako diru horren %20a itzuli beharko dugula”.

Udal gobernu taldetik erantzun zioten esanez, diru hori jaso behar zuela udalerrri honen, “aitortua dagoelako eta usurbildarrena delako”. Alkateordeak gogorarazi zuenez, “eskubide hori aldebakarrez kendu digute, estimazio zehatz bat egin gabe”. Udal honek duen egoera finantzarioa ona baliatu daiteke egoera honi aurre egiteko, baina “bere prozedurak eta mugak ditu”, udal gobernu taldetik gogorarazi zuten.

“Orain egin dena salbuespenezko egoera bat da”

Aurreko asteko udalbatzarrean Xabier Olano udal kontuhartzaileak hartu zuen parte. Foru funtsaren inguruan sortu den eztabaidari buruzko zenbait argibide eskaini zituen.

“Udalaren egoera finantziarioa ona da”

Batetik udal ordezkariak esandakoa berretsi zuen; alegia, “Usurbilgo Udalaren egoera ekonomiko eta finantziarioa nahiko ona dela”.

Presaz eginda, datuetan behar adina oinarritu gabe

Baita, 2011. urtean soilik ez, 2010ean eta 2009an ere Udalek foru funtsetik jasotako diru kopuruaren zati bat itzuli behar izan zutela, “baina kasu guztietan urtea bukatu eta gero, otsaileko likidazioa



Foru funtsaren inguruan sortu den eztabaidari buruzko zenbait argibide eskaini zituen Xabier Olanok.

XABIER OLANO KONTUHARTZAILEA

“Usurbilgo Udalaren egoera ekonomiko eta finantziarioa ona da”

egindakoan eta foru arauak ezarritako epeetan”. Itzulketa

hori gainera, urteetan atzeratu zitekeen. Beraz, udal teknikariaren esanetan, “orain egin dena salbuespenezko egoera bat da. Inondik inora foru arauan aurreikusi gabeko egoera da, presaz eginda eta datuetan ere behar adina oinarritu gabe”.

Irakurketa partziala egitea egotzi zion EAJ-k udal gobernu taldeari

EAJ-tik ukatu egin zuen Urkolak herritarrek diru hori behar ez zutenik. Baina udalek dirua itzuli behar izan zuten urteetan udalen egoera askoz okerragoa zen, “eta atera ginen ezta? Orain berdin”, zioen. Irakurketa partziala egitea egotzi zion udal gobernu taldeari. “Eskerrak Udalaren egoera osasuntsua den, bestela hemendik ez ginateke aterako”.

Elkarlana eta adostasunaren bidea, EH Bilduren erantzuna

Bizi dugun krisialdi egoera honetan aurrera egiteko bidea; duela bi aste, udal taldeek modu bateratuan eskaini zuten elkarlanaren eta adostasunaren irudia zela nabarmendu zuen EHBilduk.

Adostasuna bilatzeko eskaera EHBildutik Foru Aldundiari

EHBilduk foru funtsari buruz aurkezturiko mozioa onartu zuen udalbatzak gehiago osoz, udal gobernu taldeko kideen babesarekin. EAJ eta PSE aurka agertu ziren. Gipuzkoako Foru Aldundiak aldebakarrez hartutako erabakia nabarmentzen du koalizioaren testuak, “herrietako zerbitzu publikoak garatzeko” ezinbestekotzat jotzen duten finantziario iturria den foru funtsean %20ko murrizketa aplikatzeko Diputazioak eginitako hautua.

Erakunde guztien artean eztabaidatua

Eta biharamunean, erabakio hartzeko gunea behar lukeena Gipuzkoako Finantzen Kontseilua deitu izana. “Euskal erakundearen arteko

diru-banaketan aldatetarik egon behar bada, erakunde guztien artean eztabaidatua eta adostua izan behar luke, alde guztiek informazioa modu gardenean partekatu eta inolaz ere ez aldebakarrez”.

Hiru eskaera

3 eskaera bideratzen dizkio EHBilduren mozioak Foru Aldundiari:

- Gai honi buruzko elkarrizketa abiatzea udalekin.
- Aldebakarrez hartutako erabakia berraztertzea.
- Udalen egonkortasun finantziarioa bermatzeko elkarlanean adostasuna bilatzea.

Azkenik, “Gipuzkoako Finantzen Kontseilua udaleko kobernantzarako foro bihurtzea”.

Elkarrizketa mahaia sortzea eskatu dute EAJ-k eta PSE-k

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta herrialdeko udalerriak elkartuko dituen elkarrizketa mahaia sortzearen aldeko mozioa aurkeztu zuten maiatzaren 28ko udalbatzar telematikoan EAJ-k eta PSE-k. “Gaur inoiz baino beharrezkoagoa da erakundearen arteko elkarrizketa, pandemia honi eman behar zaion erantzuna elkarlanean eta eraginkortasunez aztertzea”, dio babes nahikorik jaso ez zuenez, onartu gabe geratu zen bi alderdion mozioak. Bi taldeotako udal ordezkarien aldeko bozka izan zituen soilik, testu propioa aurkeztu zuen EHBildu aurka agertu zen.

Aipatu moduan, erakunde-mahaia bat sortzea eskatzen du EAJ-PSEren mozioak, “Foru Aldundiaren eta EU-

DELeke Gipuzkoako Lurralde Batzordearen artean”. Helburuok betetzeko: “lurraldeko erakunde guztietatik krisiari erantzuteko ekimen eta planen koordinazioa bultzatzeko, eta lankidetzaren eraginkor bat garatzeko, herritarrentzat erakunde arteko gobernantza hobea lortzearen”.

Finantzen Lurralde Kontseilua aipatzen du lanketa hau guztia bideratzeko bilgune gisa. Aldundiari aipatu Kontseilua “hiru hilean behin dei dezala” eskatzen dio, bizi dugun krisiaren intentsitateagatik eta inoiz baino beharrezkoagozat jotzen dutelako, egoera ekonomikoari, diru-bilketa aurreikuspeni eta udalen egoerari buruzko informazioa “maiztasun handiagoz partekatzea”.

Labe Goxo okindegia: “Jendea lasaiago dago orain”

Maskara edo musukoa jantzita. Halaxe topatu ditugu herriko okindegietako saltzaileak. Lasai sumatu ditugu, okerrenea pasa den ustearekin.

NOAUA! Itxialdian, lan gehiago egin duzue edo berdintsu aritu al zarete?

Axun Sagardia. Bai, lan gehiago egin dugu. Jendeak bi ogi eramaten bazituen, konfinamenduan lau erosten zituen. Etxetik egunero atera beharrean, bi egunetik behin etortzen zen jendea, eta badaezpada pixka bat gehiago erosten zuen.

Lanpetuago ibili zarete hortaz. Lana oso ezberdina izan da. Ilarak sortzen ziren kanpoan eta urduritasuna nagusi zen. Baita hemen barruan ere. Gu presaka, eta hemen zegoen



Bezeroak banaka atenditzen dituzte Mikel Laboa plazako okindegian.

JOERA BERRIAK

“Jende asko etorri da irin eta legamia bila. Madalenak, erroskilak edota ogia egiteko...”

klienteak, harek ere kezka.

Jendeak pazientziarekin hartu

ditu ilarak, ezta?

Nik uste dut baietz. Errespetuarekin. Baten bat konturatu gabe sartzen bazen eta beste bezeroren bat bazen okindegi barruan, ateratzeko esan eta ondo hartzen zuen.

Bereziki lehen asteak izan ziren zailenak.

Bai, eta kristoren aldaketa egon da azken asteotan. Hasi-eran jendea urduri zebilen eta ez zekien nondik nora joan behar zuen. Orain dena kontrolpean dugula uste dut. Jendea lasaiago sumatzen dut.

Segurtasun neurriei dagokionez, ondo moldatu al zarete?

Bai, baina zalantza asko izan ditugu. Batean horrela egin behar dela esaten zen eta beste aldetik ezetz, ez dela horrela egin behar.

Aldaketa asko denbora gutxian.

Hori da asuntua.

Hemen ere igarri al zenuten legamia erosteko fenomenoak?

Bai, nabarmen gainera. Jende asko etorri da irin eta legamia bila. Madalenak, erroskilak edota ogia egiteko.

Aizpurua okindegia: “Aste honetan hasi gara arratsaldeetan zabalitzen”

Konfinamenduan zehar goizez bakarrik zabaldu zuten okindegia. “14:00ak arte edo aritu gara dendan. Jendeak bazekien. Astelehen honetan hasi gara arratsaldeetan ere irekitzen”.

NOAUA! Etxealdiak iraun duen denboran, zer moduz joan zaituzue hemen?

Aizpurua okindegia. Tabernak eta jatetxeak itxita egon dira, eta sagardotegiak ere bai. Guk hori asko nabaritu dugu hemen. Bi sagardotegitan banatzen dugu eta batek astebukaera batean bakarrik 400 ogi eskatzen dizkigu. Patri jatetxea eta Bordatxo taberna ere gure bezeroak dira eta biak itxita egon dira.

Hemen, dendan, ez dut aldaketa handirik atzeman. Gu-



Kale Nagusiko dendan antzeko martxan aritu dira lanean.

BEHERAKADA SALMENTAN

“Sagardotegietan eta jatetxeetan banatzen dute ogia, eta hilabete hauetan itxita egon dira”

txi edo gehiago, berdin jarraitu dugu. Jendea goiz partean pa-

satzen zen.

Legamia bila ere bai?

Bai, hori ere saldu dugu. Lehen asteetan bereziki.

Zuei ere agortu al zitzaizuen?

Legamia hemen gutxi izaten dut baina faltan dugunean

obradorera deitzen dut eta handik ekartzen didate. Frigorifikoan badaukat orain ere. Pastilak nahikoa handiak dira eta jendeak puska bat eskatzen zidan, ogia egiteko. Boleta batean, orain denak panadero egingo dira! nire artean. Bizkotxoak ere, askok egin dute asteotan.

Irina aldiz, ogi zakutik sueltotan saltzen dut. Eta konfinamenduaren lehen asteetan izugarri saldu zen. Pasa da bolada zailena.

Bezeroak banan bana atenditzen jarraitzen duzue.

Bai, eta ondo portatu dira. Txartel bat ipini genuen dendan eta Udalak marratxoak egin zituen lurrean. Jendeak pazientziarekin hartu ditu gauzak.

Opil-Goxo okindegia: “Lanerako garai zaila izan da”

NOAUA! Ez dira lanerako garai errazak, ezta?

Opil-Goxo. Zaila izan da horrela lan egitea. Ilara luzeak igandetan sortu dira bereziki. Pastel asko saltzen ditugu eta lana bi-koiztu egiten da. Maiatzeko lehen igandean adibidez, bat egin zuten konfinamenduaren irteerak, Amaren Egunak eta Andatza Egunak. Igande hartan, ilara elizaraino iritsi zen. Ezintasun handia sentitzen duzu horrelakoetan.

Kafetegia itxita izan zenuten lehen asteetan, baina kafea eramateko eska zitekeen.

Bai, aukera hori bagenuen eta latak ere saltzen ditugunez, freskagarriak eta garagardoak izugarri saldu ziren.

Herritik ezin atera, bertan kontsumitu behar zen. Zuei ere lana handitu egingo zitzaiz-



Opil-Goxo okindegia Kale Nagusian dago eta kafetegia ere bada.

KONFINAMENDU GARAIAN

“Baserrietan bizi direnen seme-alabak etortzen ziren gurasoentzako ogia erostera”

zuen, ala ez?

Berdintsu egin dugu lan. Ordu-
tegia murriztu egin behar izan
genuen, ogiarekin bakarrik ari-

tu ahal izateko. Gainera, jaso
genuen mezua izan zen ahalik
eta denbora gutxien egon behar
genuela jendaurrean. 6:00etatik
14:00etara egin dugu lan.

Orain ordea, arratsaldetan ere zabaltzen duzue.

Bazen jende bat, lanetik bueltan zetorrena eta ogia erosteko aukera gutxi izaten zuena. Hona iritsi orduko, bere gustuko ogi-

rik ez zen gelditzen. Konfinamendua arintzen hasi zenean, arratsalde ere zabaltzen hasi ginen. Bagenekien ez zuela irabazi handirik ekarriko, baina bezeroengan pentsatuz egin genuen; egunero lanetik bueltan datorrenak izan dezala gustuko eskaintza.

Batzuk etxean egin dute ogia. Zuengana ere etorri al dira gozogintzako osagaiak erostera?

Ogi-irin asko saldu dugu, eta baita legamia ere.

Bi hilabete hauetan, etengabe aritu zarete lanean. Baldintza zailetan. Jendeak eskertzen al du halako ahalegina?

Batzuk bai. Baina baten batek aurpegiatu digu beraiek etxean egon diren garaian gu dirua egiten egon garelako hemen.

Denetarako jendea dago hemen.

Laukote okindegia: “Aste hauetan jende gehiagok bazkaldu eta afaldu du etxean”

Fase guztiak “pasa ditugu hemen”. Eramateko kafearekin bizitakoak ondo laburbiltzen du konfinamendua zer izan den Laukoteko langileentzat. “Eramateko bazen, posible genuen saltzea. Gero ezetz, eta astebete egin genuen kafea ezin saldu. Gero berriz baietz”. Nahasgarriak izan dira arauak. Baina konfinamendua arintzearekin batera, gauzak bere onera itzultzen hasi dira. Aste honetan ohiko ordutegia berreskuratu du Laukote. Terraza, kafetegi eta okindegi zerbitzua eskaintzen dute Artzabalgo parkean.

NOAUA! Funtsezko jarduera izanik, ez duzue etenik egin. Lana handitu egin al zaizue?

Laukote okindegia. Lan gehi-
go eduki dugu, bai. Jendea
lanera joaten denean, bere



Betiko ordutegia berreskuratu dute. Astelehenetik egun osoan da zabalik.

NORMALTASUNERANTZ

Terraza zabalik dute “eta barruan bi mahai jarri ditugu orain. Komunak ere ireki ditugu”

lantoki ondoan eros dezake
baina konfinamendua ezarri

zenean, herrian geratu zen
jendeak herrian erosi behar
zuen. Horretaz gain, jende
gehiagok bazkaldu eta afaldu
du etxean... Eta astebukae-
ran ezin zen tabernara edo
jatekera joan.

Jantokiko jangelan beharrean,
umek etxean bazkaldu dute.

Beraz, igoera igarri da, bai.

Hona ere iritsi al zen legamia eta irinaren fenomenoak?

Bai, horiek ere lehen baino askoz gehiago saldu ditugu. Legamia ez zen agortu, egun batetik bestera eska dezakegu. Baina irina bai, egun batzuetan agortuta egon zen.

Bezero batzuk lehen aldiz hurbilduko zitzaizkizuen. Akaso bertakoa gehiago baloratuko dute aurrerantzean, ezta?

Denetatik egongo da. Atetik sartzen diren bezero guztiak berdin tratatzen ditugu hemen. Bezero berri bat izan daitekeelako geroko bezero. Akaso egongo da hona etortzeko ohitura ez izan arren, berriro itzuliko dena. Guk hala izatea espero dugu!

Konfinamenduak preso eta senideentzat “sufirimendu-plusa ekarri du”

Maiatzeko azken ostiralarekin batera, Euskal presoek eskubideen aldeko mobilizazioak Euskal Herriko plazetara itzuli ziren, covid19-aren eraginez bi hilabeteko etenaldia izan ostean. Baita Usurbilgo Mikel Laboa plazara ere. Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak deituta, mobilizazio jendetsua egin zen frontoi atzean.



Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak deituta, mobilizazio jendetsua egin zen aurreko ostiralean frontoi atzean.

Konfinamendu garai honek tan une gogorak eta batzuetan oso mingarriak bizitzea egokitu dela gogorarazi zuten deitzailerek, “baina euskal preso politikoentzat, haien familia eta lagunentzat sufrimendu-plusa ekarri du”. Kutsatzeko arrisku handia eta gaixotuz gero espetxetik kanpo baino ondorio larriagoak, “osasan bitartekoaren egiturazko gabeziengatik”. Baita espetxealdiaren hiru laurdenak beteta, jada kalean behar zuten arren, Madrilgo Aranjuezeko espetxean dituzten Olatz Lasagabaster eta Patxi Uranga herritarren kasuan ere. “Gainerako presoak bezala, gure herrikide Olatz eta Patxi jasan dute (eta oraindik ere jasaten ari dira) itxialdi bikoiztua eta Olatzen kasuan hirukoiztu bezala definitu genezakeena. Izan ere, kartzelako ohiko giltzapetzeari, modulokoa eta orain bere ziegakoa ere sufritzea tokatzen ari zaio. Bere haurdunaldia dela-eta, azterketak egiteko ospitalera eraman dutenez, handik itzultakoan berrogeialdian bakar-tua segitzen baitu”, Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak joan den ostiraleko mobilizazioan berri eman zuenez.

Bisitarik gabe izan dira asteotan. Urte hasieran alaba Xua haiengandik bereizi zutenetik behin baino ezin izan dute ikusi gurasoek. “Beste presoak bezala, haiek ere ezin

USURBIL NAHI DITUGU

“Gose greban dagoen Patxi Ruiz iruindarrarekin ikusi dugun bezala, pandemiarekin aregotu diren beren eskubide urraketak ekiditea errazagoa litzateke etxetik gertu balira”

izan dute aste hauetan gutzietan bisitarik izan eta Xuak Picassent utzi zuenetik, behin bakarrik ikusi dute, otsailaren 27an. Telefono bidezko deiak eta bideo-dei bakan batzuk izan dira elkar ikusi ezin horren zuloa betetzeko modu bakarra”, Usurbilen Nahi Ditugu bilgunearen esanetan.

Berehalako neurrien eskaera

Bizi dugun testuinguruan, presoek auzian berehalako urratsak ematea eskatu zuten: gaixo dauden presoek etxeratztea, 65 urte baino gehiago dituztenena. Eta arrisku gehitua dutenena baita, haurdun den Olatz Lasagabaster tartean. “Eta nola ez, lege arrunta aplikatuta jada kalean beharko luketen guztiak ere bai”. Tartean, Olatzekin batera, Patxi Uranga bera.

Deseskalatze prozesu betearen garen honetan, ahalik eta lasterren, premiazkotzat jotzen

dituzte bisitak berriz martxan jartzea exijitzen dute. “Familia bisitatzeko eskubidea bermatzeko euskal lurraldeetatik atara behar dute senide gehienak eta hori ezinezkoa da une honetan. Horrenbestez, Espainia zein Frantziako espetxetara bidaiatzeko beharrezko bitartekoak jarri behar dituzte agintariak”. Nahiz gogorarazten duten, egoera hauek kudeatzea askoz errazagoa litzatekeela, dagozkien eskubideak bete eta euskal presoak lehenbailen Euskal Herriratuko balira. “Gose greban dagoen Patxi Ruiz iruindarrarekin ikusi dugun bezala pandemiarekin aregotu diren beren eskubide urraketak ekiditea errazagoa litzateke etxetik gertu balira”.

Datozen deialdiei adi egoteko eskatu zuten, “gurekin berriro izateak ematen digu aurrera jarraitzeko indarra” gogorarazita. Tartean, Sarek abiarazi duen “Izan Bidea” ekimenari. Euskal Herriak duen biztanle adina kilometro (3.127.326 km) egitean oinarritua dago, bakarka nahiz taldean. “Euskal preso eta iheslarien egoerari irtenbidea emateko urratsak eman eta kilometroak egitea da asmoa, herri honen elkarbizitzaren eta bakearen aldeko ibiltarien sare erraldoia osatuz”, Sareren esanetan. Informazio gehiago sare.eus atarian.

Udal zerbitzuekin hitzordua eskatzeko komunikazio bideak

Udal zerbitzuekin hartuemanetan jartzeko bideok dituzte:

Udala

943 371 951
erregistroa@usurbil.eus

Gizarte Zerbitzuak

943 377 110
gizarte-zerbitzuak@usurbil.eus

Potxoenea

943 371 999
itzultzailea@usurbil.eus

Sutegi udal liburutegia

943 360 692
688 625 477 (Whatsapp zerbitzua)
biblioteka@usurbil.eus

Sutegiko auditorioa eta erakusketa gela

943 371 999
itzultzailea@usurbil.eus

Oiardo Kiroldegia

943 372 498
kirola@usurbil.eus

Auzo-lokalak

943 371 951
zerbitzuak@usurbil.eus

Gizarte larrialdietako laguntzen eskuorria

Bizi dugun osasun krisialdiari aurre egiteko, “gizarte bazterkeria egoerak saihestea edo leuntzea” helburu izan eta beharrezko gastuei aurre egiteko nahikoa baliabide ez duten pertsonen zuzenduriko gizarte larrialdietarako laguntzei buruzko eskuorria banatu du Usurbilgo Udalak etxez etxe. Udal zerbitzuetan eskuragarri duzue. Eskaerak udaletxean edo gizarte zerbitzuetan bideratu behar izaten dira.

■ Informazio gehiagorako:

943 377 110
gizarte-zerbitzuak@usurbil.eus

USURBILGO TABERNA, JATETXE ETA SAGARDOTEGIEN IREKIERA



ZUEN ZERBITZURA SEGURITASUN NEURRI GUZTIEKIN

Maileguen sistema abian da berriro Sutegi udal liburutegian

Deseskalatze prozesu batean dira udal zerbitzuak; tartean Sutegi udal liburutegia. Liburutegiko langileek NOAUA!ri eskainitako elkarrizketa honetan, konfinamendu asteak nola bizi izan dituzten eta egoera berri honetara egokitzeko bideratzen ari diren lanketaren berri eman dute.

Mailegu zerbitzua martxan jarrita itzuli zarete jendaurreko zerbitzura. Zer modutan ari zarete bideratzen?

Sutegi udal liburutegia: Aste hasieratik erabiltzaileak Liburutegiarekin harremanetan jarri ahal izango dira telefonoz (943360692), whatsapppe (688625477) eta posta elektronikoz (biblioteca@usurbil.eus), astelehenetik ostiralera, goizeko 10:00etatik arratsaldeko 18:30era. Hartueman horretan, erabiltzaileak zein liburu eta ikusentzunezko eskuratu nahi lituzkeen adieraziko digu; horiek Liburutegian badaude, mailegua prestatuko dugu, bestela, Liburuzainok beste batzuk proposatuko dizkiogu. Nahi duenak Euskadiko Liburutegien katalogoan (www.katalogoak.euskadi.eus edo www.liburubila.euskadi.eus-en) begiratu dezake gure eskaintza; egun hauetan,



“Mailegua telefonoz edo birtualki egin ondoren, dokumentuak jasotzeko hitzordua adostuko dugu”.

SUTEGI UDAL LIBURUTEGIA

Aste hasieratik erabiltzaileak Liburutegiarekin harremanetan jarri daitezke telefonoz (943360692), whatsapppe (688625477) eta posta elektronikoz (biblioteca@usurbil.eus). Astelehenetik ostiralera, goizeko 10:00etatik arratsaldeko 18:30era

itxialdian zehar Liburutegian sartu diren liburu eta ikusentzunezko berriak ere ezagutzera emango ditugu sare sozialen bidez. Mailegua telefonoz edo birtualki egin ondoren, dokumentuak jasotzeko hitzordua adostuko dugu, eta azkenik, erabiltzaileak mailegu horiek Sutegiko atarian jasoko ditu.

“Berrogeialdian” omen duzue liburutegiko materiala. Kontaguzue liburutegiko ondareak nola bizi izan duen konfinamendua.

Liburu eta bestelako dokumentuak etxean zituzten erabiltzaileak horiek buzoian uzten ari dira; guk bertatik jaso eta kaxatan jartzen ditugu, egun bakoitzeko kaxa batean, eta hamabost egunez bertan egoten dira, itzuli ere egin gabe (beraz, katalogoan maileguan baleude bezala azaltzen dira). Epe hau pasatakoan, dokumentu horiek itzuli eta bere lekuan jartzen ditugu, edozein erabiltzailek lasaitasun osoz berriro maileguan hartzeko moduan.

“Erabiltzaileentzat aukera paregabea izan da eLiburutegia”

NOAUA! Konfinamenduan itxita izan duzue liburutegia. Baina eLiburutegiak zerbitzua eskaintzen segi du. Zer nolako balantzea egin dezakezue?

Sutegi udal liburutegia: Liburutegiko erabiltzaile eta irakurleentzako aukera paregabea izan da eLiburute-

gia, Eusko Jaurlaritzak sustatutako Liburutegi digitala. Zenbaitek Liburutegia itxi aurretik liburu eta ikusentzunezko mordoxka eraman zuen, baina horiek denak pasata, irakurgaiak eta pelikulak faltan botatzen zituzten. Etxeko eta inguruko aukera

guztiak agortuta, eLiburutegia arnaspune ederra izan da askorentzat; batzuk lehendik ezagutu eta erabiltzen zuten, baina beste hainbatek orain ezagutu du eta probetxu handia atera dio, liburuak ez ezik, pelikula sorta ederra ere eskaintzen baitu Liburutegi

digital honek.

Liburutegiarekin erabiltzaile asko jarri da harremanetan dokumentuak deskargatzeko laguntza eskatuz, edo pasahitza behar zuela esanez; behin bidea ikasita, jendea ondo moldatu da, eta poz handia eman digu horrek.

“Konfinamenduan zehar, gure helburu nagusia erabiltzaileengandik gertu egotea izan da”

NOAUA! Nolako izan da zuen eguneroko lana asteotan?

Sutegi udal liburutegia: Modu ezberdinetan jardun dugu liburuzainok, batzuetan etxetik, bestetan Liburutegian bertan jardunez, baina beti ere, erabiltzailearekin harremana mantentzen saiatuz, birtualki izan bada ere.

Irakurzaletasunak zer leku izan du zuen ikuspegitik konfinamenduan? Erabiltzaileen aldetik zer da jaso duzuen?

Itxialdi honetan, gure helburu nagusia erabiltzaileengandik gertu egotea izan da, irakurri nahi zuen horrengandik gertu, eLiburutegitik dokumentu bat jaitsi nahi zuen horrengandik gertu, gomendio bat eskatzen zizun horrengandik gertu, bere ikasleei liburuak gomendatu nahi zizkion irakaslearengandik gertu, eta nola ez, eLiburutegitik pelikulak jaitsi nahi zituen horrengandik gertu ere. Era berean, komunitatea zaintzeko ere baliatu dugu itxialdi hau, eta erabiltzaileei #etxeanirakurtzen lelopean argazkiak bidal diezazkiguten eskatu diegu (ondoren bideotxo bat egin eta sarean zabaldu dugu), bi solasaldi egin(go) ditugu online, Ixabel Agirresaroberekin elkarlanean ipuin labur polit batzuk hedatu ditugu... Beraz, irakurzaletasuna bultzatu baino gehiago, gure jendartearengandik gertu egon nahi izan dugula esango genuke. Eta bueltan jaso duguna, izugarria izan da, esker ona ez ezik, gertutasun handia. Oso pozik gaude bueltan etorri zaigunarekin.”



“Musukoa ekarri behar da, eskuak garbitu behar dira Sutegiko atarian eta 2 metroko distantzia mantendu”.

SUTEGIKO LANGILEAK
“Gure jendartearengandik gertu egon nahi izan dugula esango genuke. Eta bueltan jaso duguna, izugarria izan da, esker ona ez ezik, gertutasun handia. Oso pozik gaude bueltan etorri zaigunarekin”

rengandik gertu egon nahi izan dugula esango genuke. Eta bueltan jaso duguna, izugarria izan da, esker ona ez ezik, gertutasun handia. Oso pozik gaude bueltan etorri zaigunarekin.

Laster zabalduko duzue liburutegia. Zer moduz doaz pres-

taketa lanak?

Oso aurreratuta ditugu Liburutegia irekitzeko lanak; jada erabiltzaileen eskaerak jaso, prestatu eta bideratzeko gogoz gaude, eta batez ere, erabiltzaileekin harreman zuzena izateko gogoz.

Herriko saltokietara sartzean dugun pareko jokabidea izan beharko dugu liburutegian ere ezta?

Kontutan izan behar da gu oinarrizko fase batean hasiko gara, beraz, neurriak oso estuak izango dira. Lehenengo hama-bostaldian zehar, gutxienez, alde zurretik liburu eta ikusentzunezkoak eskatu, mailegatu eta adostutako hitzorduan jaso

beharko dira; musukoa ekarri behar da, eskuak garbitu behar dira Sutegiko atarian eta 2 metroko distantzia mantendu beharko da.

Nola irudikatu dezakegu konfinamendu osteko liburutegi barruko bizitza? Nola eskaini asmo dituzue zuen ohiko zerbitzuak?

Kosta egiten zaigu ondorena aurreikustea. Fasez fase goaz, momentuz lehenengo hau prestatu dugu kontu handiz, eta ondorengoan, ez dakigu zenbateraino gerturatu ahal izango diren erabiltzaileak Liburutegira. Dena dela, denborak eta etapak aurrera egin ahala, jakinaraziko dugu.

Sutegi udal liburutegia, kontuan hartzeko arauak

- Momentuz itzulketa mailegu zerbitzua soilik.
- Aldez aurretik dokumentu eskaera egin eta hitzordua eskatu. Ordutegia: asteleheneetik ostiralera, 10:00-18:30.
- Katalogoa kontsultatzeko bi esteka:

katalogoak.euskadi.eus
 liburubila.euskadi.eus

Harremanetarako:

- 943 360 692
- 688 625 477 (Whatsapp)
- biblioteka@usurbil.eus

Euskadiko Liburutegien Sarearen gomendioak

- 1.- Posible bada, liburuak alde zurretik eskatu.
- 2.- Hobe bakarrik bazatoz eta liburuak gordetzeko poltsa ekarri, mesedez.
- 3.- Adin txikikoak eta menpe-

- koak bakarrik etor daitezke beste pertsona batekin batera.
- 4.- Eskuak garbitu eta maskara ekarri.
- 5.- Lurrean markatutako ibilbideak edo liburuzainen argibideak jarraitu.
- 6.- Tarte soziala errespetatu.

Garraio zerbitzuak, maizago

Lurraldebusek zenbait autobus-linea indartu ditu, bai astetartean, baita asteburuetan ere.

Taxibus udal zerbitzua

65 urtetik gorakoentzako zerbitzu pertsonalizatua eskainiko du soilik. “Bakarrik moldatuko ez balira, laguntzaile gazteago batekin joan ahal izango luke”, argitu du Udalak. Taxibusa baliatu behar duenak deitu dezala aurrez 630 643 596 telefono zenbakira.

Euskotren

Lan egunetan zerbitzuen %100a eskaintzen segitzen du Euskotrenek. Asteburuetan (larunbat, igande eta jai egunetan) aldiz, Usurbildik Oriorantz, orduero izango dira zerbitzuak 8:04-22:04 artean. Usurbildik Donostiarantz ere orduero, 8:54-22:54 artean. Informazio gehiagorako: 944 333 333 euskotren.eus

Lurraldebus

Astebeteko tartean, berriz eguneratu ditu Lurraldebusek bus



Lan egunetan zerbitzuen %100a eskaintzen segitzen du Euskotrenek.

ordutegiak. Zenbait autobus-lineetan zerbitzuak maizago eskainiko ditu aurrerantzean. Informazio gehiago: lurraldebus.eus Lurraldebusen app-a

UK09 (Zumaia-Donostia)

Astelehenetik ostiralera:

■ Usurbildik Donostiarantz: 7:10, 7:45, 8:10, 8:45, 9:15, 9:45, 10:15, 10:45, 11:15, 12:15, 13:15, 13:45, 14:15, 14:45, 15:15, 15:45, 16:15, 16:45, 17:15, 18:15, 19:15, 19:45, 20:15, 21:15, 21:45, 22:35.

■ Usurbildik Oriorantz: 7:15, 8:15, 8:45, 9:15, 9:45, 10:15,

11:15, 12:15, 12:45, 13:15, 13:45, 14:15, 14:45, 15:15, 15:45, 16:15, 17:15, 18:15, 18:45, 19:15, 19:45, 20:15, 20:45, 21:45, 22:45.

Larunbat, igande eta jai egunetan:

■ Usurbildik Donostiarantz: 8:10, 10:10, 12:10, 14:10, 17:10, 19:10.

■ Usurbildik Oriorantz: 9:30, 11:30, 13:30, 15:30, 18:30, 20:30.

T2 (Aginaga-ospitaleak)

Egunero:

■ Usurbildik egunero eta or-

duro abiatuko dira zerbitzuak 7:20-21:20 artean (7:17an, 10:17an eta 14:17an eta 20:17an Aginagatik), 15:20ean izan ezik.

■ Ospitaleetatik orduotan: 8:10, 8:50, 9:50, 11:10, 11:50, 12:50, 13:50, 15:10, 16:10, 16:50, 18:10, 18:50, 19:50, 20:50, 22:10ean. Denak helduko dira Usurbileraino. Aginagarako, 13:50, 15:10, 19:50 eta 22:10ean ospitaleetatik abiatutako zerbitzuak.

T6 (Usurbil-Hernani)

Astelehenetik ostiralera

(lan egunetan):

■ Usurbildik: 7:15, 8:15, 9:15, 13:15, 14:15, 18:15, 20:15. 10 minutura Zubietan, 20 minutura Urbilen.

■ Hernanitik: 7:45, 8:45, 9:45, 12:45, 13:45, 14:45, 18:45 eta 20:45ean. 10 minututan Urbilen, 20 minututan Zubietan, ordu erdira Usurbilen.

Larunbatetan:

■ Usurbildik: 7:15, 8:15, 14:15, 18:15, 20:15.

■ Hernanitik: 7:45, 8:45, 14:45, 18:45, 20:45 (18:00etan Lasarte-Oriatik).

2020-21 ikasturterako izen emateak

Zumarte Musika Eskola

- Epea: ekainak 5.
- Modua: online zumarte.eus bidez. Jendaurreko moduan, ekainaren 4an, 10:00-13:00.
- Eskaintza: “Musika txokoa, musika mintzaira, tronpetak, tronboia, saxofoia, bonbardinoia, biolina, perkusioa, klarineta, eskusoinua, trikitixa, panderoa, pianoa, txistua, gitarra, flauta, organoa, abesbatza, talde instrumentalak”. Tronboia, saxofoia, tronpetak edo biolina urtebetez uzteko aukera.
- Oharrak: iazko matrikula eta prezio kostuetan aldaketarik

ez. %40ko deskontua familia ugarien kasuan edo 3 senide edo gehiago matrikulatzen direnean. Plaza banaketaren araudia aplikatuko da. Informazio gehiago: 943 37 15 94 bulegoa@zumarte.eus zumarte.eus

Usurbilgo Lanbide Eskola

- Epea: ekainak 19.
- Modua: online ikasgunea. euskadi.eus ataritik edo ikastetxean bertara aurrez deituta (943 364 600).
- Eskaintza: erdi eta goi mai-

lako zikloak. Eremu haue-takoak: Administratiboa, Elektrizitatea eta elektronika, Mekanika, Mantenimendua, Energia eta ura.

■ Oharra: ezingo da matrikulatu uztailearen 13tik 17ra, aurrematrikulatu gabe. Aurrematrikulazioa egiterakoan, espezialitateak lehentasunen arabera zerrendatu eta non egin nahi diren zehaztu behar du ikasleak.

Informazio gehiago: lhusurbil.eus 943 364 600 eskola@lhusurbil.eus

Oinarrizko Lanbide Heziketa

- Epea: ekainak 19.
 - Modua: online olh.usurbil.eus ataritik egiteko aukera.
 - Eskaintza: oinarrizko lanbide titulua sukaldaritza eta jatetxe arloan; eta ile-apainketa eta estetika arloan. DBH-ko graduatua eskuratu eta erdi-mailako zikloetara sarbide zuzena. 15-17 urte arteko gazteei zuzendua.
- Informazio gehiago: lhi@usurbil.eus 943 36 04 65 olh.usurbil.eus

“Jai Batzordean hauxe erabaki dugu: Santixabelak bertan behera uztea eta Usurbilgo Kultur Birari ekitea”

Duela hiru aste, arintze fasearen aukerak baliatuz, “Usurbilgo Jai Batzordea biltzen hasi ginen, aurtengo festekin zer egin erabakitzeko helburuarekin. Covid19-ak eragindako osasun krisia medio, hasiera-hasieratik garbi izan dugu 2020koak ez direla orain arte ezagutu ditugun Santixabelak izango. Ezingo ditugula nahi genituzkeen bezala ospatu. Bide horretan, eta hainbat bilera eta eztabaida izan ostean, hauxe erabaki dugu: Santixabelak bertan behera uztea”. Trukean, Jai Batzordea dinamika berri bat egituratzen hasi da: Usurbilgo Kultur Bira.

Jai Batzordeak NOAUA!ra igorri duen idatziak honela dio: “Kulturgintzak gure egunerokotasunean duen garrantzia izan da itxialdiak azaleratu duen ezaugarrietako bat. Arteak gure egunak alaitu, argitu eta indartzeko gaitasuna duela erakutsi digu, eta, berrogeialdian, sorkuntza izan da etsipenetik urruntzen lagundu digun haize boladetako bat.

Horregatik, krisi honen aurretik jada prekarizatua zegoen kulturgintza hauspotzeko xedearekin, Usurbilgo Jai Batzordeak Usurbilgo Kultur Bira antolatzea erabaki dugu: uztailea osoan Usurbilgo txoko ezberdinak kultur ekimenez zipriztinduko dituen ekimen parte hartzailea izango da, kaxkoko betiko festen moldetik urrunduz.

Bagenekien ordea, orain



“Herritik eta herriarentzat antolatzen gabiltzan dinamika erabat berritzaile hau gauzatzeko, modu batean edo bestean, zure laguntza beharko dugu”. Idatziak Usurbilgo, Sanxetebango, Santueneko, Atxegaldeko eta Agiñako Jai Batzordeen sinadura darama.

USURBILGO KULTUR BIRA

“Uztailea osoan Usurbilgo txoko ezberdinak kultur ekimenez zipriztinduko dituen ekimen parte hartzailea izango da, kaxkoko betiko festen moldetik urrunduz”

arteko Jai Batzordeak nekez gaindi zezakeela horrelako erronka puska. Horregatik jo dugu Usurbilgo beste herri-aztoetara, proposamena aurkeztu eta elkarrekin lan egitera gonbidatuz. Hala, Sanxetebango, Atxegaldeko eta Santueneko jai batzordeek bat egin zuten gure proposamenarekin, eta guztiok batera ari gara lanean gaur egun.

Hasieran esan bezala, argi dugu herritarron osasuna dela dinamika honen abiapuntua eta helmuga. Horregatik, hau guztia posible izan dadin, eta beharko ditugun osasun neurri zorrotzak errespetatuak izan

daitezen, Usurbilgo Udalarekin hartu-emanetan gaude, Ekimen Kulturalak burutzeko Protokoloa landu baitu. Protokolo horrek arautuko ditu, besteak beste, espazioen eta parte hartzaileen desinfekzio neurriak, guneen sartu-irtenen eta aforoan antolaketa, asistentzia alde aurretik zehazteko metodologia, streaming formulen nolakotasuna... eta beste hainbat alderdi. Guztiak izan beharko ditugu kontuan planteamendu berritzaile eta, zentzu batean, apurtzaile hau egikaritzeko orduan. Eta horien guztien artean, ziurrenik garrantzitsuena herritar orok ipini dezakeen aletxoia izango da, ez baita izango Usurbilgo Kultur Birarik, usurbildarrok babesten eta bultzatzen ez badugu.

Horregatik, datozen asteetan bidaliko ditugun mezu eta berriei adi aditzeko eskatu nahi dizuegu: herritik eta herriarentzat antolatzen ga-

biltzan dinamika erabat berritzaile hau gauzatzeko, modu batean edo bestean, zure laguntza beharko baitugu

Usurbilgo Jai Batzordea, Sanxetebango Jai Batzordea, Santueneko Jai Batzordea, Atxegaldeko Jai Batzordea, Agiñako Jai Batzordea”.

Euskara ikasleentzako eta aisialdiko begiraleentzako dirulaguntzak

Hiru dirulaguntzen oinarriak onartu zituzten maiatzeko Tokiko Gobernu Batzordean: euskara ikasteko dirulaguntzak, behar ekonomiko bereziak dituztenentzako euskara ikasteko dirulaguntzak eta aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroak egin dituztenentzako dirulaguntzak. Oinarriak usurbil.eus orrian aurkituko dituzue:

Euskara ikasteko dirulaguntzak

Epea: ekainaren 29tik uztailearen 10era bitartean.

Behar ekonomiko bereziak dituztenentzako euskara ikasteko dirulaguntzak

Epea: GAOn argitaratzen den egunetik uztailearen 9ra bitartean [biak barne].

Aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroak egin dituztenentzako dirulaguntzak

Epea: ekainaren 29tik uztailearen 10era bitartean.

Josue
Igeltseritza:
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Zuen publizitatea hemen
943 360 321
publizitatea@noaua.eus

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

“Ura sartu zen barrura”, 1997an Usurbilen izan ziren uholdeak abiapuntu dituen ikusentzunezkoa

Peru Galbetek *Ura sartu zen barrura* izeneko ikusentzunezkoa aurkeztu zuen urte hasieran, Nafarroako Punto de Vista zinema jaialdian. “Txikia nintzanean uholde handi bat egon zen bizi ginen auzoan. Denak salbu atera ginen baina ez baje-ran genituen oroitzen asko. Diapositiba batzuk besterik ez zituen berreskuratu aitak, eta banan-bana garbitu. Urak ordea beste esanahi bat eman die”. Sinopsiatik haratago jo nahi izan dugu. Hauek dira Peru Galbetek egin dizkigun adierazpenak.

NOAUA! 16 minutuko ikusentzunezko bat da. Ez da ohiko dokumental bat. Gehiago du pieza artistikotik. Nola definituko zenuke zuk?

Peru Galbete. Dokumentala da baina egia da diluitzen ari dela muga hori. Ez-fikzio gisa definituko nuke. Gauzak kontatze-ko beste modu bat.

Ura sartu zen barrura ikusentzunezkoan, 1997ko uholdeak ekarri dituzu gogora.

Urak argazkietan zer nolako eragina izan zuen ikusten da diapositibetan, eta interesgarria iruditu zitzaidan. Baina ez da uholde haiei buruzko lan bat



Aitak etxeko baje-ran gordetzen zituen argazkiak. Uholdeekin busti egin ziren. “Urak argazkietan zer nolako eragina izan zuen ikusten da diapositibetan, eta interesgarria iruditu zitzaidan”. Artelanak dirudite.

PERU GALBETE

“Dokumentala ez da uholde haiei buruzkoa bakarrik. Txikitako oroitzapenak diapositiba horiekin batera uztartzea erakargarria egin zitzaidan”

bakarrik. Txikitako oroitzapenak diapositiba horiekin batera uztartzea erakargarria egin zitzaidan.

Hortaz, 1997ko uholdeak baino, urak kaltetutako diapositiba horiek izan dira lan hau abiarazi dutenak.

Hori da. Nik 10 urte nituen orduan. Erdi ahaztua nuen, erabat ahaztua ez esateagatik. Diapositibak topatu nituenean, orduan erabaki nuen zerbait egin beharra nuela.

Txikierdin bizi zineten orduan, Troia baserriaren ondoan.

Bai. Troia auzoan. Hor behean etxebizitza batzuk daude. Zu-

loan geratzen diren horietako batean bizi ginen orduan.

10 urte zenituen. Beraz, gogoan izango duzu.

Bai, gogoan dut. Dena den, ez dut oroitzapen traumatikorik gordetzen. Ni amarekin atera nintzen eta mendian itxaroten egon behar izan genuen urak jaitsi arte, berriz etxera itzuli ahal izateko. Bizilagun batzuk apuro handiagoak pasa zituzten. Hala ere, horrelakoak denoi geratzen zaizkigu memorian.

“Urak diapositibak itxuraldatu zituen”

NOAUA! Laburmetraiak hiru osagai nagusi ditu: argazki zaharrak, aitak magnetofoi bidez eginiko grabazioak eta auzotarrei eginiko elkarrizketak.

Peru Galbete. Akaso garrantzia txikiagoa du baina uraren soinua topatzea inportantea izan zen niretzat. Girotze lanak egiteko, uraren soinua batzuk behar nituen eta Interneten topatu nituen. Euskal Herri osoko soinuen biltegi bat dago sarean, soinumapa.net. Uraren soinua grabatu bat bilatzen

ari nintzen eta ura preso irudikatzen duen audioa topatu nuen. Sinbolikoa iruditu zitzaidan. Gizakiak naturan eragiten du etengabe. Gure etxe aurreko karretera hori urtez urte gero eta gorago, gero eta gorago, azkenean zulo batean utzi zuten auzoa. Uholdeetan ikusi zen moduan.

Oroitzapenak baino, diapositibak izan ziren akuilu lana egin zutenak.

Banekien aitak jasoak zituela.

Duela urtebete ordea, kutxa batean ikusi nituen berrero. Orduarte ez zitzaidan piztu horrekin zerbait egiteko gogoia.

Eta lanari ekin zenion.

Diapositiba asko ziren. 2.000 baino gehiago eskaneatu nituen. Eta horrek lan handia eman zidan. Baita eskaneatu ondorengo hautaketa-lanak ere.

Urak bere lana egin zuen argazkietan. Bere arrastoa narbaria da. Argazkiek horrelako

ukitu artistiko bat dute orain.

Bai. Hori izan zen hasieratik atera nuen ondorioa. Argazkiak eskaneatzerakoan indar handia zutela ikusi nuen. Arrasto horiek ez daude nahita eginda eta, era berean, artelanak dira. Urak diapositibak itxuraldatu ditu eta diapositiba horiek dira nire txikitako oroitzapen asko. Era berean, denborak oroitzapenak aldatzen ditu. Hor metafora polit bat ikusi nuen eta horri heldu nion.

Peru Galbete: “Zerbait kontatu nahi nuen, baina ez nirea den zerbait bakarrik”

NOAUA! Dokumentalean entzuten diren magnetofonko audioak txundigarriak dira. Umetako kantak, etzekoen arteko solasalditxo laburrak. Zure haurtzaro garaira garamatzate.

Peru Galbete. Hori da. Diapositibekin bakarrik ezin nion laburmetraiari mugimendu handirik eman. Horregatik soinuek eta kantuek garrantzia handia dute sekuentzia bakoitza osatzeko orduan. Audio horiek ez dira uholde garaikoak bakarrik, baina dena elkarlotzeko ahalegina egin dut, denari zentzu bat emanez. Ikusi eta entzuten dugun horrek zentzua izan dezan.

Aitak grabatzen zituen audio horiek?

Bai, nik duela gutxi deskubritu ditut zintak. Diapositibak eskaneatzen hasi eta gero, 10 bat kasete topatu nituen. Hor argi eta garbi ikusi nuen laburmetraia-aren ideia. Diapositiba horiekin beste proiektu batzuk egiteko asmoa nuen baina zintan deskubrimenduak jarri ninduen dokumentala egitera.

Familiaren ondarea baliatu duzu ikusentzunezkoa osatzeko. Bidaia intimo bat da, baina unibertsala da kontatzen duzuna. Edonoren haurtzaroa ekar dezakeelako gogora.

Material pertsonala edo familiarra oso interesgarria da baina

Irudiak, abstraktuak eta errealistak

NOAUA! Diapositibekin beste-lako lanik egingo al duzu?

Peru Galbete. Kontzertu musikal bisual bat egiteko asmoa dut. Diapositiba abstraktuekin egingo dako bideo muntaia bat izango da, musikarekin lagunduta. Horrekin hasi nintzen eta diapositiba abstraktuenak hautatu nituen. Gero audioak deskubri-



“Diapositibekin bakarrik ezin nion laburmetraiari mugimendu handirik eman. Horregatik soinuek eta kantuek garrantzia handia dute sekuentzia bakoitza osatzeko orduan”, aitortu digu Peru Galbete. Argazkia, artxibokoa.

PERU GALBETE

“Diapositibak eskaneatzen hasi eta gero, 10 bat kasete topatu nituen. Orduan ikusi nuen argi laburmetraia-aren ideia”


jakin behar da zerk duen balio kolektiboa. Horregatik pozten naiz laburmetraia modu horretan ulertu baduzu. Nik hasieratik intentzio hori nuen. Eta azken batean, hori izan da nire erroka. Nire begiradatik atera eta material horri begiratu pantaila aurrean agertzen dena ni izango ez banintz bezala. Zerbait kontatu nahi nuen, baina ez nirea den zerbait bakarrik. Jende asko identifikatuta sentitu daitekeen zerbait.

Mundu oniriko bat iradokitzen dute audioek eta argazkiek. Bizilagunekin eginiko elkarrizketek ordea, errealitate dosi bat ematen diote dokumentalari.

Bai, interesgarria iruditzen zitzaidan nahasketa. Diapositibak oso gertukoak dira, haurtzaroa ekartzen dute gogora. Baina uraren eraginez, beste zerbait adierazten dute. Entrebista horiek uholdeen historia jasotzeko asmoz egin nituen.

Zer diote zure etzekoek?

Nafarroako Punto de Vista jaialdian aita eta arreba egon ziren eta gustura atera ziren proiektiotik. Uste dut gustatu zaiela. Beren ikuspuntutik ikusi dute, oso pertsonala da beraientzat.



tzear, dokumentalari ekin nion edo errealistagoak direnak jasotzeko asmoz egin nituen laburmetraia.

“Gero eta denbora gehiago eskaintzen diot musikari”

NOAUA! Zinema arloko lanez gain, musikari ere bazabiltza. Bakarleri edota beste musikari batzuen konpainian.

Peru Galbete. Nik gehienbat kameralari bezala egin dut lan. Musikan hasi nintzen gutxinaka, baina gero eta denbora gehiago dedikatzen diot. Hatxe izeneko taldean nabil orain baina nire proiektu propioa ere badut.

Asko asebetetzen nau gauza ezberdinak egiteak eta horregatik ez dut baztertzen ez bat eta ez bestea. Proiektu bat bukatzean beste bati ekiten diot, eta laburmetraia eta gero, disko berriari heldu diot. Horrela ibiltzen naiz.

“Nor zara zu?”, konfinamenduan erditutako diskoa

Duela hilabete eskas, disko berria kaleratu du Peru Galbete. *Nor zara zu?* (Mukuru, 2020) du izena eta “azken hiru urteetan, Usurbil, Urretxu eta Uharte artean idatzi eta grabatutako kanta batzuen bilduma da”. Uhartan nahastu zuen, konfinamendua bete-betean zela. Etxealdiaren zati handi bat hortaz, diskoa burutzen igaro zuen.

Oraingoan, sarean baino ezin da entzun. Bandcamp plataforman, perugalbete.bandcamp.com helbidean. Dena den, *Nor zara zu?* disko euskarri fisikoan plaza-ratzeko asmoa du.

NOR ZARA ZU?



PERU GALBETE

Nor zara zu? diskoaren azala.

“Hildakoak ere mugitu zituen” 1997ko uholdeak

1997ko ekainaren 1ak ez zuen gauza onik ekarri. Goizean goizetik botatako eurijesak ederki astindu zituen herriko zenbait auzo. Honela hasten da NOAA!k orduko hartan eginiko kronika. Felix Aizpurua, Josu Aranberri, Ainhoa Azpirotz, Iñaki Eizagirre, Olatz Goenaga eta Xabier Iribarren argazkiekin osatu zuten gehigarri berezitik hartu ditugu irudiok.

Etxealdia urez estali zen. Txokoalden, urak aurrean harapatzen zuen guztia eraman zuen. Kalezarren, beste horrenbeste. Troian jendeak teilatutik irten behar izan zuen. Puntapaxen berriz, zubia puskatu eta errepidea altxa zuen. Eta Kaxkoan, hilerriaren horma zati bat apurtu zuen uholdeak. Hortik goiburua.



Peru Galbeteren ikusentzunezkoaren aitzakian, 1997ko ekainaren 1eko uholdearen irudi batzuk berreskuratu ditugu. Erauntsiak kalte material ugari eragin zituen. Irudian, tren geltokia, urak estalia.



Autobus bat, N634 errepidean iraulita.



Aginaga eta Usurbil arteko bidean hainbat luizi egon ziren.



Troia, Txikierdi.



Etxealdia.



Etxealdia ondoko N634 errepidea, urez gainezka.



Txokoalde.

Urrats gehiago “deseskalatze” prozesuan

Konfinamendu osteko “deseskalatze” prozesu betean da udalerria. Usurbilgo Udalak iragarri duenez hainbat zerbitzu martxan jartzen joango dira asteotan, bizi dugun egoera berriaren baldintzetara egokituta; zerbitzu bakoitzaren ezaugarriak eta segurtasun neurriak kontuan izanda. “Itzulera mailakatua izango da gainera, segurtasun neurriak tarteko, zerbitzuak ezin izango baitira bere osotasunean eman, behin-behinean. Zita hartu beharko da, derrigorrez, guztietan, eta segurtasun protokoloak errespetatzeko”.

Ekainaren 1az geroztik Potxoenea:

■ Harrera zerbitzua martxan, aurrez hitzordua eskatuta: itzultzailea@usurbil.eus 943 371 999.

■ Bilerak %30eko edukierara mugatuak: sotoan 9 lagun, I. solairuko proiektore gelan 7 lagun eta 4 lagun gela txikian, 15 lagun Urdintxo gelan. Giltzak goizko harrera ordutegian hartu beharko dira. Erabiltzaileei protokoloa helaraziko zaie eta desinfektatzeko produktuak eskura izango dituzte.



Ekainaren 8an irekiko da gimnasioa; ekainaren 15ean, igerilekua. Zerbitzuak mailaka eta prebentzio neurriak kontuan hartuta emango dira. Gutun bat bidaliko diete erabiltzaile guztiei, neurrien zein itzulketen berri emanez.

MODU MAILAKATUAN

“Itzulera mailakatua izango da, zerbitzuak ezin izango baitira bere osotasunean eman, behin-behinean”

Sutegi:

Liburutegia:

■ Maileguak: liburuak kanpoko buzoira itzuli, 14 egun pasako dituzte berrogeialdian.

■ Liburuak hartzeko ordutegia: 10:00-18:30. Bideotatik: 943 36 06 92

688 625 477 (Whatsapp) biblioteca@usurbil.eus

■ Liburuen kontsulta, online kataloan:

katalogoak.euskadi.eus

liburubila.euskadi.eus

■ Eraikinaren atarian jarriko dituzte mahaiak, mostradore gisa.

Auditorioa eta erakusketa gela:

■ Hitzordua bideotatik eskatu: itzultzailea@usurbil.eus 943 371 999.

■ Edukiera %30era mugatua: 20 lagun erakusketa gelan, 50 lagun auditorioan.

Auzoetako lokalak:

■ 14-65 urte arteko herritarrentzat mugatua.

■ Gehienez 15 laguneko taldeak.

■ Bertara joan baino lehen aurrez eskaera egin: lokala zerbitzarako erabili zehaztu eta segurtasun protokoloa adosteko. Hitzordua bideotatik eskatu: zerbitzuak@usurbil.eus 943 371 951.

Haraneko lokalak:

■ Bi erabilera posible: futbol taldearen kasuan biltegiaren txukunetarako soilik. Musika taldeen entsegu lokaletan, lokal bakoitzean talde bat.

■ Ordutegiak adostuta modu koordinatuan erabili beharko dituzte.

■ Kanpoko atea beti itxita egon beharko du.

■ Hitzordua bideotatik eskatu: 943 372 498 kirola@usurbil.eus

Ekainaren 8tik aurrera

■ Kiroldegiko gimnasioaren irekiera. Ekainaren 4tik aurrera hartu ahalko da hitzordua.

Ekainaren 15etik aurrera

■ Kiroldegiko igerilekuaren irekiera.

Posta bidez bozkatzeari errazteko, Correos ordutegi zabalagoan irekita

Uztailaren 12ko EAE-ko hauteskondeei begira posta bidezko bozkaren tramitazioa errazteko ordutegi zabalagoan irekia izango da Correoseko bulegoa aste honetatik aurrera. Ordutegi berria uztailaren 10era arte behintzat mantenduko da.

Ohiko ordutegia berreskuratu du; hau da, astelehenetik larunbatera izango da zabalik, astelehenetik ostiralera

8:30-14:30 artean, eta larunbatetan 9:30-13:00 artean. Horrez gain, aipatu moduan, datozen hauteskondeei begira posta bidezko bozkari lotutako tramitazioa errazteko astearte eta ostegun arratsaldetan ere irekia egongo da, 18:00-20:00 artean. Modalitate honetan bozka emateko eskaera bertan egin behar da uztailaren 2a baino lehen. Es-

katutako dokumentazioa jaso ahala ere, ekainaren 22tik uztailaren 8ra bozka bide beretik eman ahalko da. Baina adi, eskaera telematikoki ere egin ahalko da correos.es bidez, eta postariak jaso ahalko du zure posta bidezko bozka. Covid19-ak eragindako osasun krisialdi honetan hartutako ezohiko neurrietako batzuk dira.

Aldaketak hauteslekuetan

Hauteslekuetan ere zenbait aldaketa izango dira uztailaren 12an. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak berriki kaleraturiko zerrendaren arabera, aurreko hauteskundeetan Udarregi Ikastolan kokatu ohi diren bozkatzeko mahaiak Oiarde Kiroldegira lekuz aldatuko dituzte. Gainerako guztiak ohiko tokietan mantendu asmo dituzte.

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berriua, 2 gela, komuna, sukaldia, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukaldia handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Etxeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m². 3 logela, egongela, sukaldia eta komuna. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berrituta. 688 779 465.

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukaldia-egongela, 2 bainugela. Etxebizitza 78 m² eta garajeak 50m². Tel. 676 453 176.

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldia, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa:

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

205.000 euro. Tel. 629 631 838 :

Alokairuan

Konfinamenduan gustura gabiltza gurasoekin baina etxe bila gabiltzan bikote gazte bat gara. Biok hezitzaileak, lan kontratuarakin eta arduratsuak. 695 747 944

Usurbilen, kaxkoan eta ingururua pisu bat alokatu nahiko nuke. Txakurra daukat. Hilareñ 1ean ordaintzeko konpromisoa. 661115222.

Etxe bat edo logela bat alokatu nahiko nuke Usurbil edo ingururua. Kontratua beharrezkoa. Gustura jasoko dut zure deia horretarako aukerarik baduzu. 633141060

Etxebizitza baten bila gabiltza. Baserri bat zainduko genuke aukeran. Familia bat gara, bi seme ditugu eta euskaldunak gara. 630 335 561.

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila gabiltza. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsuak eta garbiak. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil.

Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Santuenea auzoan trastero txiki baten bila nabil. 626 735 354

Nissan Terrano 2 markako kotxea salgai. 943429682 / 637293471

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxia. Prezioa negozigarria. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatziki kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearakin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Pertsona euskaldun bat behar da Antiguon, 4 eta 5 urteko umeak

zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 629553497

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrak emateko. 608201745

Txiribogan asteburuetarako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainkatagi erretegan. 680 483 164

Zerbitzaria behar da Lasarteko taberna baterako. Interesatuak deitu telefono honetara: 607110365.

Finantza eta aseguruetakoko kudeatzailea behar da Buruntzaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguruetak, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: profesionaltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularrak emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularrak emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: gorputzaldiak@udarregi.eus

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Ekaina, uztaila eta abuztuaren haurren zaintzaile lanetan edo partikularreko irakasle gisa jardun nahi dut. Esperientzia zabala dut alor honetan. 688695958

Emakume bat, interna bezela, lan egiteko prest, etxeko lanak edo adinekoak zaintzen. 664192760 / 722 48 39 94

Esperientzia eta erreferentziak ditut. Etxeko lanak, pertsona helduak zein umeak zainduko nituzke, orduka zein egun osoz. 602830982

Usurbilen lan bila nabil zaintza lanak edo etxeko lanak egiteko. Esperientzia handi eta erreferentziak onak. Orduka zein lanaldi osoan aritzeko disponibilitatea. 617857807

Garbiketa eta zaintza lanak egingo nituzke. Esperientziarekin. Orduka, edo lanaldi osoz aritzeko disponibilitatea. 603315126

Garbiketa lanak, edo zaintza lanak egingo nituzke. Disponibilitate osoa daukat eta esperientzia antzeko lanetan. 631818150

Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko edo garbiketara aritzeko lan bila nabil. Denbora osoz edo orduka. 602424658

Eraikuntzan, jardineritzan edo bestelako ofizioetan lan egingo nuke. Bizargin moduan aritzeko ere bai. 602424658

Laguntza soziosanitarioa behar baduzu ez izan zalantzarik deituko. Esperientzia zabala osasun eta zaintza alorrean. Kontxu 619827232

Orduka lan egingo nuke Usurbilen garbiketa lanetan zein zain-tza lanetan. 689027247

Lanaldi osoz aritzeko lan bila nabil. Esperientzia asko 661091863

Adinekoak zaintzen zein garbiket-

**Zorionak Maren!**

Maitzaren 29an
6 urte bete zenituen.
Egun zoriontsu eta alaia
pasa zenuelakoan,
muxu handi bat etxekoan
eta familiaren partez.

ta lanak egiten esperientziaduna. Disponibilitate osoa. Egoitza baimena ere badut. 645067560 Betza

Adinekoak zainduko nituzke. Esperientziaduna. 666097595.

Lan bila nabil. Adinekoak zaintzeko prest. 617016290.

Lan bila nabil asteburuatarako, adinekoak zaintzeko. 688712294

Lan bila nabilen gazte bat naiz. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen, arratsaldetan edo gauean. Tel. 633 159 088.

Lan bila nabil, pertsona helduak zaintzeko, arratsaldetan edo gauean. 655 986 552

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Segituan lanean hasteko moduan. 631 703 566

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Segituan lanean hasteko moduan. 632 618 839

Lan bila dabilen mutil bat naiz. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan. Tel. 617 016 290

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen, garbiketan, ostalaritzan edo plantxa egiten. 676 188 411

Lan bila nabil. 655 986 552

Mutil langilea naiz. Pisu baten bila nabil alokairuan altzaririk gabe. Soldatarekin. 666 108 164

Haur edo adinekoak zaintzeko emakume esperientzia handia duena eskeintzen da. Baita ere etxeko garbitasunerako.

602568090 / 658706345

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 603 818 142

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 648 271 757

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 617 016 397

Neska arduratsua lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzeko edo garbiketan. 632 285 101

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 632 264 187

Lan bila nabil. Pertsona helduak

edo umeak zaintzen. 688 712 294

Ikastolatik atera ondoren umeak zaintzeko prest dagoen neska usurbildarra naiz; gaztea eta euskalduna. Edozer dela ere, deitu edo bidali whatsapp mezu bat 688637679, Maddi.

Lan bila nabil. Margolari bezala lan egin dut, garbiketa lanetarako titulua dut, "catering"ean

ere aritu izan naiz. 686 51 35 36.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 631 864 292.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan lan egingo nuke. Tel. 617 748 714.

BESTELAKOAK

Isabelita Mandarinara Japoniarrak (txoriak) ditut salgai. 659185107

Ingelesarekin laguntzeko, Usurbilgo pertsona baten bila nabil, DBH 1ean ikasten ari den nire alabarentzat. 627 18 46 74

AMC markako eltze bat daukat salgai. Oso ondo dago 943363201

Matxaka; sagarra txikitzeko tresna daukagu salgai. Itziar 637974994.

Baserriko kalabazak salgai. 605 783 227.

Estilo guztietako txirikordak (trenza) egiten dira. 658706345, 60256809.

Andatzpe Elkartearen bazkide berriak sartzeko plaza libreak daude. Edozein zalantza argitzeko 669 205 896 (Aitor).

Andatzpe elkartearen bazkidea naiz, plaza saldu nahiko nuke. 699 421 238 Iñigo.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, liburuak... Ataluko Garbigunean, doan hartu daitetzke. Astelehenerik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (Ilehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta.....	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiarde Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaual Kultur Elkarte.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Heriotzak

Antonio Arrillaga Murua

Maiatzaren 27an hil zen Aginagan 88 urterekin



Heriotzak

Maria Jesus Izagirre Alkorta

Maiatzaren 29an hil zen Santuenean 65 urterekin



Goardiako farmaziak

Osteguna 04 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Ostirala 05 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Larunbata 06 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Igandea 07 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Astelehena 08 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Asteartea 09 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Asteazkena 10 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Ekainak 04 - Ekainak 14

Osteguna 11 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Ostirala 12 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Larunbata 13 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Igandea 14 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
URRUTIA-MARTIN-HERNANI
Etxeberri auzoa, 1. Florida
943 55 77 38

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda ekaina

05 ostirala

■ **Sagardo Egunekeo plastiko zatia itzul-
tzeko aukera.** Artzabalen, Guria tabernaren
ondoan. Arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara.

06 larunbata

■ **Sagardo Egunekeo plastiko zatia itzul-
tzeko aukera.** Artzabalen, Guria tabernaren
ondoan. Eguerdiko 11:00etatik 13:00era.

07 igandea

“Sagardo Egunekeo plastikoa gorde edo bueltan ekarri”



Asteburu honetan jasoko dituzte plastiko zatiak, Artzabalgo Guria taberna ondoko lokalean.

Sagardo Egunekeo antolatzaileek ez dute “etxe ondoan eraiki diguten munstroa elikatu nahi”. Bi proposamen egin dituzte: “Plastikoa etxean gorde, datozen urteetan ere balkoietan jarri eta herria girotzeko. Edo guri itzuli, datorren urteko Sagardo Egunekeo postuetako mahaietan erabiltzeko”.

NOAUA!ra igorri duten idatzian azaldu dutenez, “balkoietan jartzeko banatu genituen plastikoa ez ditugu erabili nahi gure etxe ondoan eraiki diguten munstroa elikatzen”. Bi aukera luzatu dituzte:

1 - Plastikoa etxean “txukun-txukun gorde, datozen urteetan ere balkoietan jarri

eta herria girotzeko”.

2- Sagardo Egunekeo “itzuli, datorren urteko Sagardo Egunekeo postuetako mahaietan erabiltzeko (izkinak puskaturik, zulaturik... badaude, pixka bat txukuntzea eskertuko dugu)”.

Itzulketa egiteko urratsak

■ Sagardoaren Lagunak elkartekoei utzitako lokalera eraman behar dira plastiko zatiak. Alegia, hartutako tokira: Artzabalen, Guria tabernaren ondoan.

■ Zein egunetan:

- Ekainak 5 ostirala, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara.

- Ekainak 6 larunbata, eguerdiko 11:00etatik 13:00era.

Datozenak

Jakin Jardunaldia, “Birusak, distopiak eta mundu berriak” lelopean

COVID-19 gaitzaren ondoren, “etorkizuna irudikatzen ditugun usteak eta tresnak” aztertuko ditu aurtengo Jakin Jardunaldiak. Uztailaren 16an egingo da Udarregi ikastolan. Maiatzaren 25ean zabaldu zuten izen ematea eta biharamunerako taldea osatu zuten. Hemendik aurrera izena emandakoei itzarote zerrenda osatuko dute.

“COVID-19ak agerian utzi ditu gure gizartearen gaitzak eta horiei erreparatuko die Jakin Jardunaldiak, etorkizunera begirako hausnarketan”. Horretarako, zortzi aditu batuko dira Usurbilen: Mario Zubiaga, Joseba Azkarraga Etxagibel, Arantza Etxeberria, Teresa Larruzeta, Irati Zubia, Lorea Agirre, Aizpea Otaegi eta Agurtzane Solaberrieta.

■ Informazio gehiago eta egitaraua: www.ueu.eus/ikasi/udako-ikastaroak

■ Antolatzaileak: UEU, Usurbilgo Udala eta Jakin Fundazioa.



“Birusak agerian utzi ditu gure gizartearen gaitzak eta horiei erreparatuko diegu”.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO
Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78
RPS: 28/17
20170
USURBIL

ARRAUN-JARDUERAK ORIA IBAIAN

Ontzien alokairua urte osoan zehar

Begiraleekin antolatutako jarduerak

Usurbilgo Txokoalde auzotik Orioraino, 2,5 orduko jaitsiera kaiakean.

657 794 677

www.begi-bistan.com
info@begi-bistan.com



FINKA ADMINISTRATZAILEA

AHOLKULARITZA ZERBITZUA

INMOBILIARIA

ASEGURUAK

943 573 693

Eusko Gudari 35, ORIO



**EKAINAREN 5EAN IREKITZEN DUGU!
ZUEN ZERBITZURA, SEGURTASUN NEURRI GUZTIEKIN!**

Sagardotegia



**URTE OSOAN ETXEAN EGINDAKO
SAGARDOA TXOTXETIK!**

Berezitasuna; Sagardotegiko menua
Karta zabala, ikatz parrilan erretako arrainekin.
Familiako ospakizunak, bataio, komunio, enpresa afariak...
Ezkontzetarako jangela egokitua.
Parkina eta umeentzat jolastokia.

Tfn-fax: 943 36 67 10 - Aginaga auzoa, 20170 USURBIL
info@aginagasagardotegia.com - www.aginagasagardotegia.com

AGINAGAN HOTELA

24 gela eroso eta guztiz ekipatuak:
aire girotu eta berogailua, TV, WIFi, bainugela
kompletoa...

Diseinu moderno eta funtzionala

Energia berriztagarritz (geotermia) baliatzen da ur beroa eta klimatizazioa lortzeko.

Lan bidaiari, oporraldi eta lasaitasunaz gozatu nahi duenarentzat leku ezinhobea.

Tfn-fax: 943 37 06 68 - Aginaga auzoa, 20170 USURBIL
info@aginagahotela.com - www.aginagahotela.com

Hotela * *



www.gertuago.eus



Erosketa seguruarik,
deskontu eta guzti!

Usurbilgo merkatariak gertu gaude!

Emaiozu bizitza
herriari!

%20
des
kontua
bonuetan

Sartu gertuago.eus
webgunean eta erosi bonu
txartelak %20ko deskontuan.

100€

BONU
TXARTELA

50€

BONU
TXARTELA

20€

BONU
TXARTELA



USURBIL
UDALA

gertu@go

Usurbilgo
merkatariak gertu!



2018 - 2021